

GRADU AMAIERAKO LANA

POSTERRA EGITEKO ARGIBIDEAK

POSTERRA EGITEKO ARGIBIDEAK

GRALa poster baten bidez aurkeztu eta defendatzen da.

Posterra egiteko laguntza behar baduzue, esteka honetan aurkituko duzue posterra egiteko informazioa:

http://www.uhu.es/vic.investigacion/ucc/documents/actividades/EGuardiola_poster_cientifico.pdf

Posterraren formatua

- Posterra orrialde bat izango da, orientazio bertikala edo horizontala duena, eta PDF formatuan.
- Posterra epaimahaiak proiektatuko du defentsa egingo den ikasgelako ordenagailua erabiliz, bertan dagoen pantailan. Beraz, ez duzu posterra paperean inprimatua ekarriko.

Goiburua

- Posterraren goiburuan argi ageri beharko dira GrALaren izenburu osoa, egilearen izena eta bi abizenak, eta testu hau: "UPV/EHUko Psikologia Fakultatea".
- Letra tipo gomendagarria EHUSherif izango da, eta letra-tamaina ikasleak erabakiko du.
- Informazio horretaz gain, goiburuan Fakultatearen logoa jar daitezke. Gure Fakultatearen logoa dokumentu honen amaieran eta webguneko GrAL-ikaslearen atalean dago.

DEFENTSARAKO ARGIBIDEAK

- Defentsaren data posta elektronikoz bidaliko zaizu. Mezu horretan datu hauek emango dizkizugu:
 - o Defentsaren data eta ordua.
 - o Ikasgela.* GrALaren defentsa zein ordu zehatzean egin behar duzun egunean bertan jakinaraziko zaizu, gelako atean egongo den dokumentuan.
- Defentsarako prozedura honi jarraitu beharko diozue: Egunean esan zaizuen orduan defentsa publikoa hasiko da. Ikasle bakoitzak bere posterraren ahozko aurkezpena egingo du (5 bat minutuz) eta ondoren epaimahaikideen galderei erantzungo die.

Logoa:



PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA

EHU tipografia:

<https://www.ehu.eus/eu/web/gizartea/ehu-tipografia>